

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure ispilu adimendunaren bezero mota gaztea, modernoa eta berrikuntzazalea da. Pertsona ireki eta jakin-min handikoa da, joera berriak ezagutzea eta probatzea gustatzen zaiona. Beti dago berrikuntzen bila, bai modan, bai teknologian, eta bere irudia zaintzea garrantzitsua iruditzen zaio. Ez du soilik ondo janzteka bilatzen, baizik eta bere estilo pertsonala modu originalean adieraztea.

Eguneroko bizitzan, denbora oso baliotsua da berarentzat. Eskola, lana edo bestelako jarduerak direla eta, ez du beti denborarik arropa aukeratzeko edo konbinazio desberdinak probatzeko. Horregatik, erraztasuna eta praktikotasuna eskaintzen dituzten produktuak estimatzen ditu. Ispilu adimendunak, hain zuzen, behar hori asetzen du, janzteko prozesua azkarrago eta erosoago bihurtuz.

Bestalde, bezero honek teknologiarekiko interesa du. Gailu digitalak, aplikazioak eta sare sozialak maiz erabiltzen ditu, bai informatzeko, bai inspiratzeko. Horien bidez, modaren joera berriak jarraitzen ditu eta estilo berriak ezagutzen ditu. Teknologia bere eguneroko bizitzaren parte da, eta horregatik, gure produktua ispilu adimenduna bere bizimoduarekin guztiz bat dator.

